



Kaixo lagunok,

Igande honetan, irailak 15, iaz martxan jarri genuen Ziklometroak ekimenari jarraipena emango diogu. Aurreko komunikazioetan aipatu genizuen bezala, Gipuzkoako Ikastolen artean osatu nahi dugun ekimena da eta oraingo honetan gurasoak eta langileak dira eragile protagonistak. Ikastolarentzat ekimen hau ez da modu “masiboan” planteatzen (gutxienez 2 eta gehienez 10 pertsona) eta lanketa komunikatiboaren bitartez, aurtengo Kilometroak-ek duen leloa, Ikastolen artean “ni, hi hura, ikastola mundura!” zabaldu nahi dugu.

Ekimen hau ondo ateratzeko ezinbestekoa da ordutegia hertsiki errespetatzea. Egin dugun estimazioa erreal dela uste dugu (15 km/orduko) eta agian galdu daitekeen denbora gehiena erreleboetan izan daiteke. Hori dela eta, erreleboak ahalik eta modu dinamikoan egitea eskatzen dizuegu (hala ere antolakuntzatik bertan egongo gara egoera bideratzeko).

Eta idatzi honekin azken eskaera. Ziklometroak ekimen honetan zuen ikastola ordezkatzuz parte hartuko duen partaide baten telefono zenbakia behar dugu. Ekimen honen ezaugarri teknikoak zehazteko ondorengo egunetan berarekin harremanetan jarriko gara.

Mila esker ekimen honetan parte hartzeagatik.


Eguna: 2019ko irailaren 15an

Ibilbidea: Villabona - Andoain

Kilometroak: 5

Desnibela: Igoera 40 m; Jatsiera 38 m

Planoa:



Irteera Villabonatik: 15:00etan

Helmuga Andoainera: 15:30etan

Track-a: Emaileraz